

# BERRIZTARRA

2010eko ekaina

berrizko UDALA

## JAIETAN PARTE HARTZEKO AUKERA ASKO DAGO

San Pedro eta Santa Isabel jaiak gainean ditugu. Jai batzordea apiriletik dabil datozen egunetako ekitaldiak prestatzen. Orain jaietan, jai egitea tokatzen da. Jai batzordeko kideek bakoitzak ahal duen neurrian, parte hartzeko deia luzatu dute; batzuk ekitaldietan lagunduz, beste batzuk disfrutatuz.

# udal erabakiak

## •Ohiko bilkura: apirilak 14

* Aizpea Macarro falta.

**Onartutakoa**

- Otsaileko udal bilkuraren aktaren onarpena eta alkatetza dekretuen berri eman zen.

## •Ohiko bilkura: maiatzak 12

**Onartutakoak**

- Berriz Hirigintza Elkartea S.A.-k edo Udalak dituen etxebizitzen alokairu araudian, alokatzaileak aukeratzeko baldintzak eta prozeduran aldaketak. Aho batez.

- "Oporrak bakean" programaren barruan familia hartzaileei dirulaguntzak Saharara bidaiatzeko. Aho batez.

- Eraikinetan igogailuak instalatzeko irizpide orokorrak. Aho batez.

- Herriko kultur taldeek dirulaguntza eskatu eta emateko araudia berrikusi eta gero aldaketak. Aho batez.

## •Ohiko bilkura: ekainak 9

* Koldo Mendez (PSE) eta Bego Navarro (EAJ) falta.

**Onartutakoak**

- Aurrekontu aldaketa espedientea, kreditu gehigarri bidez. 8 aldeko botu: 4 (EAJ) eta Karmen Amezua, Aitor Zumelaga, Aizpea Macarro eta Gorka Camara. Abstentzioa:1 (EA).

- "Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari"mozioa. Aho batez.

- Gazari buruzko mozioa. Aho batez.

**Hurrengo batzarrak:**
**Uztailak 14 eta irailak 8, arratsaldeko 7etan**

LIBURUTEGIA BERRIZ



## KREDITU GEHIGARRIA

### 850.974,79€ azpiegitura lanetarako

**2010. urterako Udalak** onartu zuen aurrekontuari ia 851.000 euro gehitzea erabaki du udalbatzarrak. Batez ere, azpiegitura lanetarako eta mantenu gastuetarako erabiliko da eta, 2009. urteko udal kontuak kitatu ostean, udalari geratu zaion 1.900.000 euroko soberakinetik hartuko da.

Gasturik nabarmenena auzobideen konponketa lanena da. Andikona eta Sarria auzoetan, bide bazterren egokitze eta asfaltatze lanak egingo dira. Guztira, ia 600.000 euroko inbertsioa ekarriko dute lan horiek.

## MOZIO BI AURRERA

### Udalbiltza eta Gazari buruzkoak

**Ekainaren 9ko ohiko udal bilkuran** Udalbiltzari eta Gazari buruzko mozio bana onartu ziren aho batez. Mozio biak Karmen Amezua, Aitor Zumelaga, Aizpea Macarro eta Gorka Camarak aurkeztu zituzten. Udalbiltzaren aurkako epaiketaren aurrean, erakundearen beraren zilegitasuna berrestea eta epaiketa salatzeko konpromisoa onartu zuten mozioarekin, besteak beste. Bestetik, Gazara giza-laguntza eraman zuten bakezaleen kontrako erasoa salatzea ere onartu zen bigarren mozio batekin. Horrenbestez, Gazak bizi duen blokeoa amaitzea eskatu zuten eta dolu modura, palestinar bandera jartzea ere erabaki zuten.

## INSTALACIÓN DE ASCENSORES

**La corporación municipal ha acordado, por unanimidad,** establecer unos criterios generales para la instalación de ascensores en edificios existentes en suelo urbano y que no estén fuera de ordenación. Las comunidades de vecinos deberán ajustarse a esos criterios.

Siempre que sea posible, la instalación del ascensor se situará en el interior del edificio. Si hubiera, y se justificara imposibilidad técnica se permitirá la instalación en el exterior del edificio, garantizando el cumplimiento de mínimos acordados por la corporación.





# ENPLEGUA SUSTATZEKO KONPROMISOAREKIN JARRAITZEN DU UDALAK

## Langabetuen datu basea eguneratzeko erregistroa zabalik

**Enplegua sustatzeko ekimenak bultzatuko ditu Udalak berriro. Dagoeneko zazpi lagun lanean hasita daude. Udaleko brigada taldearekin batera, auzobideen konponketa lanetan eta mantenu zereginetan dihardute. Bestetik, udaleku irekietarako begiraleak udalak zuzenean kontratatuko ditu beste urtebetez eta laister + Euskadi 09 programari esker udalaren beharrizan berrietarako aldi baterako enplegua sustatuko da.**

Maiatzean hasita zazpi lagun dabiltza udaleko brigada taldearekin lanean. Enkofradorea, igeltsero ofiziala eta bost peoi dira. Guztiak udalaren langabetuen datu-basean zerrendatuta egon dira. Sei hilabetez egun osoko lanaldian jardungo dute zazpirek. Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera Enplegua Sustatzeko Plana garatu du Berrizko Udalak. Ez da baina plan bakarra izango.

Eusko Jaurlaritzak abian ipinitako + Euskadi09 planean ere parte hartuko du Berrizek. Baiezkoa jasota, hurrengo lana udalaren beharrizanak zehaztea izango da. Horren arabera, beharrezko izango diren pertsonen kontratazioa egingo da. Horretarako, etengabe berritzeko aukera dagoen eta udalak kudeatzen duen langabetuen zerrenda kontsultatuko da lehenengo.

Bizkaiko Diputazioari eta Eusko Jaurlaritzari esker garatzen diren enplegu planetan, erakunde nagusiek ezeze Berrizko Udalak ere urteko aurrekontutik dirutan inbertsio garrantzitsua egiten du. Bestetik, orain urtebete abian ipinitako langabetuen datu-basea bitarteko baliagarria da Udalarentzat. Enplegua sustatzeko programetan kontratatuko dituen herritarren zerrenda gaurkotuta izateko tresna da.

### 17 BEGIRALE

Enplegu arloan, baina, badira aipatzeko moduko beste ekimen batzuk. Azken urteetako erabakiari eutsiz, Berrizko Udalak zuzenean kontratatuko ditu udaleku irekietako ardura izango duten 17 begiraleak. Lan jardun osoa izango dute hilabetez eta euretako bik koordinatzaile kargua izango dute. Dagoeneko hautaketa egin dute udal arduradunek. Begirale titulua izatea, esperientzia, euskalduna eta berriztarra izatea ere baloratu dira.



Gainontzean, Berrizko Udalaren Lan Eskaintza Publikorako froga gehienak egin dira eta oposizio-lehiaketaren azken fasean sartu dira. Aste honetan hizkuntz eskakizunen azterketak egiten ari dira horietako batzuk. Eginkizun askotako langileak(2), peoiak (1), garbitzaileak (5), begirale-soroslea (1) eta administrari laguntzailea (1) dira aipatutako lanpostuak.

#### Contratación de personas desempleadas

El Ayuntamiento sigue apostando por el Plan de Empleo Local. Hace un año creo la base de datos de personas desempleadas de Berriz, con la finalidad de cubrir puestos de trabajo que surgen de diferentes necesidades puntuales en el ámbito municipal.

Desde mayo siete personas estan contratadas para trabajos de mantenimiento junto con la brigada municipal. Estas contrataciones se han llevado a cabo dentro del programa de empleo comarcal de la Diputación de Bizkaia. Y en breve, se pondrá en marcha otra nueva propuesta de empleo presentado por el Ayuntamiento dentro del programa +Euskadi09 del Gobierno Vasco. Para los dos programas se destina una partida económica del presupuesto 2010.



## apiriletik hamabostero batzarrak egin dituzte

# JAIAK JAI EGITEKO DEIA DAKAR JAI BATZORDEAK

**Ekainaren 25etik uztailaren 2ra ospatuko ditugu San Pedro eta Santa Isabel jaiak. Beren beregi jai honek prestatzen apiriletik dabil jai batzordea. Hamabost bat laguneko lan taldea da, eta bakoitzak ahal duen neurrian laguntzen du. Jaiak jai egin eta antolatutako ekitaldietan parte hartzeko gonbitea luzatzen dute.**

Hamabosterik behin bilera bat. Kultur Etxea, batzarlekua, 19:00etatik aurrera. Ahalik eta adostasun handienarekin osatzen da azkenean egitaraua. Jai batzordean parte hartzeko arrazoiak, bestetik, kideak haina aurkitu ditzakegu. Elkarte jakin baten ordezkari modura joandakoak daude, gonbitea luzatuta hurreratutakoak, udal ordezkari modura edo behargin modura egotea tokatzen zaienak... Gero, badira, bileretarako joateko astirik izan ez arren, ekitaldien antolakuntzan laguntzen dutenak: zerbitzatzen, hesiak mugitzen, bateko eta besteko kontaktuen berri ematen, ...

Urtetik urte, jendearen parte-hartzea gero eta nabarmenagoa izan da. Antolaketa lanetan ezezik, partehartzea jai batzordeak prestatutako ekitaldietan ere igarri da. Adibide bat jartzearren, jai batzordeko kide gehienek paella eguna aipatzen dute.

### PAELLA EGUNA DA JENDETSUENA

Orain dela laupabost urte otu zitzaion jai batzordeari paella egun bat prestatzea. Beste herri askotan egiten den antzera, paella lehiaketa baten aitzakiari jarraituz lagun artean bildu eta herri bazkaria egiten da. Gero eta arrakastatsuagoa da; iaz, esaterako, inoizko jendetzarik handiena bildu zen: ia 1.000 lagun. Badira pate-hartze handia izaten duten ekitaldiak ere: karta-jokoak, bolo txapelketa, erromeriak, ume jolasak... Eta parte hartzeko dei berezia izaten dutenak: euskal erromeria edota, hirugarrenez egingo den emakumeen presentzia agertuko duen argazki lehiaketa.



Jai batzordeak dei zuzena egiten die herritarrei, bakoitzak bere neurriko ekitaldietan parte hartzeko. Hala ere, badago kezka berezia kide batzuengan: gaztetxoek zer duten gustoko jakitea. Eta dei berezia zuzendu nahi zaie. Bileretara joan ez arren, euren gustoko ekitaldiak, proposamenak eta ideien berri esateko. San Pedro eta Santa Isabel jaiak prestatuta egon arren, hurrengo gabon jaiak, Sanantonioak eta karnabalak ere prestatzen hasiko dira.




**Participa en las fiestas.** La comisión de fiestas ya ha elaborado el programa de las fiestas de San Pedro y Santa Isabel. Cada quince días y desde mediados de abril, un grupo de berriztarras se ha reunido con el objetivo de diseñar un programa de actos para todo tipo de público.

Los motivos son tan variadas como personas para participar en la comisión de fiestas. Pero también hay personas que sin participar en las reuniones, ayuda activamente en fiestas colaborando en trabajos que pasan desapercibidos. Otra de las formas para participar es también acudir a las diferentes actividades que se organizan, participando o simplemente mirando.

El día de la paella es sin duda la actividad que más éxito tiene en fiestas. El año pasado se contabilizaron alrededor de 1000 personas. Los campeonatos de cartas y bolos asi como las actividades infantiles también congregan a un gran número de personas. Desde la comisión de fiestas quieren animar a los y las berriztarras para que participen en fiestas.

Una vez terminadas las fiestas de San Pedro y Santa Isabel la comisión de fiestas empezará a pensar en las actividades navideñas, Sanantonios y carnavales. Cualquier berriztarra que quiera aportar alguna idea o hacer una propuesta puede ponerse en contacto con la comisión de fiestas.

## •••zelan parte hartzen dozu jaietan?



### Mari Satur Blanco

Empecé a ir a la comisión como miembro de la Asociación de Comerciantes. Llevo alrededor de siete años y procuro ir a todas las reuniones. Ayudo en todo lo que puedo. En fiestas paso casi todo el tiempo fuera de casa. El mejor día de los sampedros es el de las paellas.



### Miguel Angel Aguado

En la cuadrilla pidieron ayuda y acudimos algunos. Ahora sólo quedo yo en la comisión, pero cuando se necesita hay muchas personas dispuestas a colaborar. El día de las paellas y organizando el campeonato de mus es dónde me encontrarás trabajando. Y para disfrutar no hay como las verbenas.



### Agus Aliste

Entré en la comisión a través de la APA y llevo ya casi diez años. Somos un equipo y lo pasamos bien. Hay buen ambiente. Ayudo en todo lo que puedo. A lo que nunca fallo es a la sardinada. El día más bonito diría que es el de las paellas, a pesar de ser también el más largo y cansado.



### Miren Iturriagaetxebarria

Kultur taldeen ordezkari lez AEKtik hasi nintzen jai batzordera joaten. Txokolatea egiten, umeen jolas eta jokoak prestatzen, karta-jokoa antolatzen... Horretan lagundu eta gainontzean, gauza gitxi galtzen ditut. Beti nago kalean jaietan.



### Iñaki Etxezarraga

Musikari modura, herriko taldeei aukera ematen zaiela ziurtatzeko hasi nintzen jai batzordera joaten. Batez ere kontzertu eguneko lanekin arduratzen naiz; arratsaldean hasi eta amaitu arte. Gero, txupinazo eguneko Donien Atxa altxatzen ere egoten naiz. Hori bai jaiak batez ere gauez bizi ditut.



### Felix Arrizabalaga

Orain ez nago jai batzordean lanean, baina sardinak erretzen aurkituko nauzu beti. Ahal den neurrian laguntzen dut jaietan. Gero, disfrutatzeko tartea ere izaten dut. Paella eguna asko gustatzen zait eta bolatokian ere ikusiko nauzu.



## JUBILATUAK HARA ETA HONA

**Udaberriarekin batera** Berrizko jubilatuek irteera diferenteetan parte-hartzeko aukera izan dute. Aurten bi izan dira, jada, egin dituzten irteerak. Lehenengoa kostaldera egin dute. Txakolinaren museoa barrutik ezagutu eta, gero, Algortako pasealekuan izan dira. Bigarren irteera "ibiltariagoa" izan da. Mendiko zapatilak jantzita, Santiago mendia eta Nerbioi ibaiaren sorburura egin dute mendi buelta.

## BERBALAGUN GAZTEAK

**Argaz** ikastet egitasmoan parte hartu dute. Euren arteko harremana daitezen ahalegina egiteko hitzarmena ere sinatu dute tekin adierazi dute. *Garrantzitsua gaur izango da sinadu nahi duguna zuek guztiok konpromisoa hartzea / Aurr dugula euskararen batzordea / Gure nahia da Euskal hitz egitea.*




## MONTES DE EUSKAL HERRIA EN LA PARED



**Este es el mural ganador** del I. Concurso de Murales organizado por el Ayuntamiento, obra del durangués Aratz Azpiri. Bajo el título de "Euskal Herriko Mendiak" ha presentado un trabajo en el que las imágenes principales encajan dentro del paisaje. El mural se pintará en la pared principal de uno de los frontones descubiertos que hay en Berrizburu, al lado del campo de fútbol. En total se han presentado siete proyectos. El ganador ha recibido un premio de 3.000 euros.

## CULTURA RUMANA

**En el 5º Encuentro Intercultural** la cultura rumana ha sido la protagonista. Entre las actividades, tanto la degustación de platos típicos como el desfile de trajes, fueron las más atractivas para todas las personas que participaron. También hubo música y baile.





## KIROL ATEAK ZABAL

**Bizkaiko b rekin bate** duera difer ibiltzeko a aurten ere. roldegian e laian eta dira ekintz tzaileek kan kuratu zute

# LABURREAN

## HAURTZAINDEGIKO GURASOEN ESKOLAK

* **0 eta 3 urte bitarteko umeen gurasoek** parte hartu dute aurten Guraso Eskolan. Hiru saioetan burutu diren tailer didaktikoak izan dira. Landutako gaien artean umeen bizitza erritmoak, ikasketa prozesuak eta bizitza afektiboa nabarmendu daitezke. Guztira 29 gurasok parte hartu dute; 8 aita eta 21 ama. Tailerren harrera ona izan dute gurasoek amaieran bete duten balorazio galdeketan. Hurrengo Guraso Eskolan antolatu daitekeen tailer berri bati begira egin dituzten ekarpenen artean denbora gehiago, talde txikiagoak eta praktika gehiago azpimarratu dituzte .

## CYCLING INTENSIVO EN JULIO



* **El polideportivo Berrizburu** intensificará en julio las clases de Cycling. Se ofertan dos cursos de quince días, de lunes a jueves, y en horario de mañana Y tarde. Desde el área de deportes también se ha diseñado un curso específico de batuka dirigido a chicos y chicas de ESO por las mañanas. Por otra parte, durante el mes de julio, se mantienen las clases de gimnasia de mantenimiento, aerobic, pilates o natación.

En cuanto al horario de verano de las instalaciones deportivas se aplicará del 1 de julio al 19 de septiembre, y del 9 al 22 de agosto se cerrarán por vacaciones.

## 4 FAMILIAS ACOGERAN A NIÑOS Y NIÑAS SAHARAUIS

Cuatro niños y niñas saharauis repetirán sus vacaciones entre nosotros. Integrados dentro del programa "Vacaciones en Paz", llegarán entre los días 8 y 10 de julio. En total, 402 niños y niñas saharauis pasarán el verano en Euskadi. El citado programa les permite abordar, por unos meses, la realidad que viven en los campamentos de población refugiada. Su estancia les evita soportar las durísimas condiciones climatológicas de los campamentos, la zona más árida e inhóspita del desierto argelino, donde en temporada estival llegan a superarse los 50º C a la sombra.

## EUSKARAREN ERABILERAN ESPERIENTZIA AINTZINDARIA

Udal langileek, euskararen erabilera sustatzeko asmoarekin, esperientzia pilotu aitzindarian parte hartu dute, Eralan proiektuaren barruan, eta Ahize-AEKren eskutik. Euskal Herriko Unibertsitateko psikologia fakultateak garatutako metodologia erabili dute. Hiru saiotan, euskararen erabilerari dagokionez, bakoitzak jokatu nahi duen rola identifikatu eta izendatu dute. Ondorio nagusia da, eguneroko lan eta lankideen arteko hartu-emanetan gora egin duela erabilerak.

## 175 UME IBILIKO DIRA UDALEKU IREKIETAN



* **Uztailaren 5etik 24ra Berrizko** 175 umek parte hartuko dute udaleku irekietan. Iazko antzera, Learreta-Markina ikastetxean elkaratuko dira goizero. 4 urteko txikitxoenekin hasi eta Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko gaztetxoentzat ekintzak antolatuko dituzte. Horretaz arduratuko dira udalak kontratatuko dituen 17 begirale. Euretako bik koordinatzaile lanak egingo dituzte, eta gainontzekoek talde baten ardura izango dute. Goizeko 9:30etik 13:30era izango da ordutegia, baina egun bateko irteerak ere izango dira tartean.

# BERRIZKO AGENDA

## EKAINAK 25

JAIAK

**19:00** Jaien hasiera: pregoia

**19:30** DJ jaia

**22:00** Aretoko dantzak

**22:30** Herriko DJ Jaia

**23:30** Tres41, Estricalla eta Dinero

## EKAINAK 26

**14:00** Paella lehiaketa

**17:00** Karta-jokoak

**17:30** Gorriti eta animaliak

**19:30** Igel txapelketa

**20:00** Frontenis txapelketa

**22:30** Erromeria BesteBat taldearekin

**23:30** Kontzertua: Esne Beltza eta Trikizio.

**24:00** Bolo txapelketa

## EKAINAK 27

**11:30** Aintzinako auto eta motorren erakusketa

**13:00** Euskal dantza eta Larrain dantza

16:30 Euskal erromeria Ansorregi taldearekin

**16:30** Pelota txapelketako finalak

**18:30** Erlojupeko igoera

**22:00** Sun magoaren ikuskizuna

## EKAINAK 28

**11:00** Umeentzat jolasak

**18:00** Pailazoak "Poxpolo eta konpainia"

**20:00** Donien Atxa

**22:00** Erromeria Lisker taldearekin

## EKAINAK 29

**11:00** Margo lehiaketa umeentzat

**12:00** Meza eta dantzariak

**18:00** Bizikleta martxa.

**19:00** Balkoitik balkoira bertso saioa.

**20:00** Dantzari Dantza

**21:00** Erromeria Luhartz taldearekin

## EKAINAK 30

**11:00** Gazteentzat tribiala

**11:30** Ping-pong, Xake eta Dama txapelketak.

**17:30** Herri jolasak umeentzat

**18:00** Tiragoma txapelketa

**19:00** Igel txapelketa



**20:00** Tortila txapelketa

**22:00** Gazteentzat bolo txapelketa

**21:00** DJ Xaibor

**23:00** Bits Jaia

## UZTAILAK 1

Jolas parkea. Goiz eta arratsaldez

## UZTAILAK 2

**12:00** Meza eta dantzariak

**14:00** Jubilatuen bazkaria

**18:00** Umeentzat erromeria Parranda taldearekin

**19:00** Pilota txapelketa finalak.

**20:00** Dantzari Dantza

**20:00** Tortila lehiaketa

**22:00** Erromeria Drindots taldearekin

**24:00** Su artifizialak




## UZTAILAK 4

**Jaia:** San Pedro Txiki, Eitua auzoan

## UZTAILAK 5

Udaleku irekiak. Ordutegia: 9:30tik 13:30ra (uztailaren 24ra arte)

Udako kirol ikastaroen hasiera

## UZTAILAK 9

**Zinea kalean**: Prince of Persia. Olakueta plazan, 22:00etan.

## UZTAILAK 10

**Jaia:** San Kristobal Txiki, Sallobente auzoan.

**Merkatarien II. Jaia.** Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 18:00etara, Olakueta plazan.




## UZTAILAK 16

**Zinea kalean:** *Robin Hood*. Olakueta plazan, 22:00etan.

## UZTAILAK 22

**Folklore Jaialdia:** Grupo Folclórico Banzé (Brasil). Olakueta frontoian, 22:00etan. Prezioa: 5€ (16 urtetik beherakoek 1€)

## UZTAILAK 23

**Folklore Jaialdia:** Naiden Kirov (Bulgaria). Olakueta frontoian, 22:00etan. Prezioa: 5€ (16 urtetik beherakoek 1€)

## ABUZTUAK 10

**Jaia:** San Lorentzo, Sallobente auzoan.

## IRAILAK 11

Frankismoko biktimei gorazarrea.

## IRAILAK 29

**Jaia:** San Migel, Okango auzoan

## GOGOAN HARTU

***Jaiak Denontzat dira.**

**Respeto**: Cuando una mujer dice NO quiere decir NO.

**Comparte**: si repartimos las tareas y responsabilidades familiares todos y todas tendremos más tiempo para disfrutar.

**Protégete**: En caso de cualquier agresión física, psicológica, verbal o sexual llama al 900 840 111

## BERRIZKO TELEFONOAK

Berriz Elizateko Udala

UDALETXEA - 94 682 40 36
OSASUN ETXEA - 94 623 61 00
AUZITEGIA - 94 623 60 31
KIROLDEGIA - 94 682 62 44
KULTURA ETXEA - 94 682 78 60
LIBURUTEGIA - 94 622 51 13

ERRETIRATUEN ETXEA - 94 682 48 66

**IKASTETXETXEAK:**
**Learreta-Markina** - 94 682 43 44
**DBH Institutua** - 94 682 49 62
**Haurreskola** - 94 682 63 39